

Kike Diez de Ultzurrun Sagalá

Nafarroako ikastolak

Laster 40 urte beteko dituzte Etxarri Aranazko eta Altsasuko ikastolek, baita San Fermin eta Paz de Zigan da ikastolek ere, azken biak bost urte lehenago, 1965ean, hiriburuko Alde Zaharrean gerra ondoren sortutako lehen ikastolaren oinordeko. Gerra aurreko ikastolak, jakina, bidean gelditu ziren, 1936ko altxamenduak odolez eragotzita.

1965eko hartan, berriz, dozena erdi haurrekin abiatu eta, gaur egun, milaka dira haur hezkuntzatik unibertsitatera iritsi artean nafar ikastoletan ari diren ikasleak. Ez da bide samurra gertatu, latza, oso latza baizik; baina argi erran daiteke gazi-gozen artean, gozotik aunitzez ere gehiago izan duela gazitik baino; emaitza, lekuko.

Zalantzarik gabe, guraso, irakasle eta ikasleen ahaleginari zor zaio ikastolen mugimendua horrenbeste hazi eta nafar administrazioak nahiz legeek bidean paraturiko oztopoak gainditu izana. Hortaz, nafar ikastolak gobernatu eta gobernatzen dituzten gizon-emakumeek eskarmentu handia dute, bide gogorrean zaildutakoak dira; badakite zer egin legeak uzten duen zirrikitu meharra zabaltzeko, bai eta Nafarroako agintarien pentsamolde hertsiairen gainetik jokatzeko ere, eta inork baino hobeki ezagutzen dute hemengo egoera. Astia dute, gainera, euskararen inguruko ekimenetan parte hartzeko, euskalgintzan ari diren gainerako erakundeekin elkarlanean, eta ez dira gutxi izan gero haiek berek antolatutakoak: ETB hartzeko antenarena, adibidez, orain dela 25 urte inguru. Beraz, ez dute legea alde, ezta agintariak ere, eta maiz, kanpaina iraingarrien jomuga izan dira. Horra hor, konparazio batera, *Diario de Navarra* egunkariak abiarazitako azkena: nafar ikastoletan erabilitako ikasliburuetan ez dela Nafarroak egun duen egitura instituzionala errespetatzen eta Euskal Herria hartzen dutela kontuan: ondorioak ikuskizun daude. Baina ateka horretatik ere aterako dira, aurretik ere aitzinera jotzeko gauza izan diren bezala; hori bai, Mendebaldetik jotzen duen haize zakarrak hankaz gora uzten ez baditu, behintzat.



JOSU SANTESTEBAN

Izan ere, orain arte, gainerako herrialdeetako ikastolek nafar ikastolekin batera jokatu dute, nafarren erabakimena errespetatu dute; erabakiak guztien arteko adostasunez hartu dira eta, orain, bat-batean, gainerako ikastolek gehiengo-gutxiengo dinamikan oinarrituriko bozketa ezarri dute, auskalo zer asmorekin.

Nafar ikastolen marko naturala Euskal Herria da, europar kooperatiba berriaren baitan, jakina; horretan ez dago zalantza izpirik, baina arazo bat sortu da barne antolaketari dagokionez, oraindik konpondu gabe dagoena. Ildo horretan, gogoratu beharra dago zeinen ondorio txarrak izan dituen Nafarroarentzat Euskal Herriko lurraldeen artean desberdintasunik egonen ez balitz bezala jokatzek; hamaika aldiz errana da Euskal Autonomia Erkidegorako balio duen estrategia Nafarroarako kaltegarria izan daitekeela.

Orain arte, gainerako herrialdeetako ikastolek nafar ikastolekin batera jokatu dute, nafarren erabakimena errespetatu dute; erabakiak guztien arteko adostasunez hartu dira eta, orain, bat-batean, gainerako ikastolek gehiengo-gutxiengo dinamikan oinarrituriko bozketa ezarri dute, auskalo zer asmorekin

Ikusi besterik ez dago zer gertatu den azken mende laurden honetan politikan eta beste zenbait arlotan, Mendebaldeko Euskal Herri osorako ikuspegi bakarria ezarri nahi izan duena.

Guri gustatu ala ez, EAEko egoera eta Nafarroakoa ezberdinak dira, arras, eta Nafarroako errealtatea kontuan hartzen ez duen politika orok erreka joko du. Espero dezagun Mendebaldeko ikastole-tako arduradunak horretaz ohartzea. ■